



Laser bidezko ebaketa eta grabaketa makina

Dokumentu honetan, laser bidez ebaketa eta grabaketa lanak egoki eta seguru egiteko bete behar diren arauak eta jarraibideak bildu dira.

Deskribapena



Hautapen eskakizunak

Kontuan hartu beharreko dokumentazioa:

Dokumentazioak bildu behar ditu:

CE marka.

CE adostasun aitortpena.

Fabrikatzailearen edo hornitzailearen erabilera eta mantenimendu jarraibideen eskuliburua, merkaturatzen den herrialdeko hizkuntzan. Tresna erabiltzean, kontuan hartu behar dira fabrikatzaileak emandako jarraibideak eta argibideak.

1215/1997 EDren zehaztapenetara egokitzearen egiaztapena (lan ekipoa).

Aldez aurreko egiaztapenak. Makinaren egoera



Konexio elektrikoek ez dute kalte edo akatsik izan behar.

Egiaztatu elikatze tentsioa tresnaren ezaugarrien plakan agertzen den berbera dela: 220VAC, monofasikoa, 50/60Hz gehieneko potentzia < 1250W.

Makinaren konexio larakoak erabiliko den korrante hargunerako balio behar du. Ezin da larakoa inolaz ere modifikatu. Ez erabili egokigailurik lur hargunea duten gailuetan. Dagozkien korrante harguneetara konektatutako larako egokiak erabiltzeak txikitu egiten du deskarga elektriko arriskua.

Makina konektatzen den instalazio elektrikoak etengailu magnetotermikoa eta disjuntore diferentziala eduki behar ditu, egoera egokienean.

Kontuz gailua ustekabeen abiaraztearekin. Ziurtatu gelditze posizioan dagoela korrante hargunera konektatu aurretik.

Langileak bete beharreko baldintzak

18 urtetik gorakoa izatea.

Osasun zaintzari dagokionez, lanpostuan aritzeko gaitasun agiria edukitzea.

Prestakuntza espezifikoa egiaztatua.

Tresna erabiltzeko baimena.

Erabilera

Erabilera jarraibideak

Tresna erabiltzean, kontuan hartu behar dira BETI fabrikatzailearen erabilera eta segurtasun jarraibideak. Erantsita.

Ez zabaldu aterik makina funtzionamenduan dagoenean.

Makinak eta periferiko guztiek lur hargunera konektatuta egon behar dute.

Langile baimenduek kontrolatu behar dute makina, eta deskonektatu, gorabeherarik sumatuz gero.

Lan eremua

Eduki lanpostua garbi eta ondo argizatua.



Lan egin oinarri sendo baten gainean, eta mantendu oreka beti. Horrela, hobeto kontrolatuko duzu erreminta elektrikoa ustekabe bat gertatuz gero.

Makinak leku lehorrean egon behar du, hautsik, bibraziorik edo eremu elektromagnetikorik gabeko toki batean. Tenperatura 5-30 gradu zentigradukoa izango da.

Arriskuak

Makinaren barnean, laser erradiazio ikusezina sortzen da, kalte itzulezinak eragin ditzakeena begietan eta larruazalean, laser sortaren kontaktu zuzen edo zeharkakoagatik (islak edo errebotek). Makina erabiltzean atak irekita egonez gero, 10,6 nm-ko babes betaurreko homologatuak erabili behar dira beti.

Sute arriskua. Eskura eduki Co2 su itzalgailu bat.

Arretaz zaindu makina, lanean ari den bitartean.

Prebentzio alderdi espezifikoak

Lan egitean, ipini ondo oinak, oreka ez galtzeko.

Kontuz ibili konpartimentu elektrikoa eta laser konpartimentua zabaltzean. Goi tentsioa dute, airean propagatu daitekeena, baita makina itzali ondoren ere. Goi tentsioko kableak manipulatu behar izanez gero, eta teknikari batek hala eskatzen duenean, garrantzitsua da 5 minutu itxarotea gutxienez makina sare elektrikotik deskonektatu ondoren.

Ez erabili erreminta atmosfera leherkorretan.

Lan eremuak aireztatuta egon behar du.

Manipulazio irekian, erabili laserretik babesteko segurtasun betaurrekoak.



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Prebentzio mantenimendua

+Bete itzazu fabrikatzailearen erabilera eskuliburuan jasota dauden mantenimendu eta konponketa jarraibideak eta/edo abisuak.